

Batasun eta zatiketen artean

Josu Landa

Argia, 1.275. zk., 1990-01-14: 63.

Bere burua nabarmentzea gustatzen ez zaion horietakoa da Martin Ugalde. Kazetari lanetan ere zomorro ibili izan da han eta hemen ("Zeruko Argia"n eta "Deia"n batez ere). Artikulu eta elkar hizketen bilduma den liburu hau letutakoan, pentsa liteke Ugalderen apaltasuna gehiegizkoa ere badela, baina besteenganako errespetua hain baliozkotza jotzen duen pertsonari hori eta gehiago ere errespetatu beharko zaio.

"Batasun eta zatiketen artean" izenburuak liburuaren edukiaz nahikoa adierazten digu. Lehenengo zatia euskararen batasunari buruzko auziari dagokio, eta bertan "h"aren gatazkaren inguruan egin zituen zortzi elkar hizketa eta artikulu modura argitaratutako zenbait eritzi biltzen dira. Gainerako ataletan gai askotako artikuluak bildu dira, baina esan liteke gehientsuenek abertzaleen arteko zatiketa dutela ardatz, eguneroko gertakizunek eskainitako parada baliatuz.

Oso gustokoa du Martin Ugaldek "inor ez dela egia osoaren jabe" esatea eta sarritan erretorika hutsa izaten dena, filosofia politikoa dugu honen kasuan. Horrekin batera, euskal historiaren unerik gatazkatsuenak ezagututako andoindar honek, sekula ez die posizionamenduei muzin egin. Euskararen batasunari buruz eta baita politikoki ere, oso eritzi jakin baten agertu izan da beti inolako lotsarik gabe. Baina egindako hautu zehatz horietatik at, sentsibiltate aparta erakutsi ohi du abertzaleen arteko zatiketa suabetu edota batasunerako bidea errazte zezaketen zubiak zabaltzearen. Arestikoa ez da ohar biografikoa, liburuan zehar lerrotik lerrora antzematen dena baizik. Berak erabilitako esaldiak dioen bezala, "hau esaten dit nire kontzientziak; ajola gutxi kontsignak", Martin Ugalderen ezpala aspalditik datorrela erakutsi digu liburu honek azken urteotan besterik ezagutu ez dugunoi. Aurrerantzeko puska batean ere izango da ezpal horren beharra.